IKUS-ENTZUNEZKOEN MINTZAIRA

Muntaien arazoak eta eurei buruzko erabakiak

Gida didaktikoa

Muntaien arazoak eta eurei buruzko erabakiak

Sarrerakoa

Irudi eta soinuz osaturiko mezuez inguraturik bizi gara. Hau ez da, berez, kaltegarria, ez; gainera, horrela bizitzea beste erremediorik ez dugu. Beraz, onena, ikus-entzunezkoek gureganaino iristeko erabiltzen duten mintzaira eta teknika ezagutzea izango da.

Bestalde, mintzaira horrek erabiltzen dituen kode artistiko eta ez-artistikoak moldez ulertzea lortzen badugu, mezuak interpretatzeko eta sortzeko abagunea izango dugu, sartzen digutenaren aurrean, jarrera kritikoa garatuz eta gure komunikazio ahalbideak aberastuz.

Hona zer dioen OCDk Plastika eta Ikus-Hezkuntza ikasgaiaren sarreran:
Ikus-informazio gehiegi jasotzen dugun kultura honetan, Plastika eta Ikus--Hezkuntza arloak menpekotasuna eta pertzepzio pasiboa gainditzen saiatu behar du, eta baita pertzepzioa eta adierazpena errazagoak egingo dituen pentsamendu arin nahiz razional eta produktiboa eragiten ere.

IKUS-ENTZUNEZKOEN MINTZAIRA DBHko 2. zikloan erabiltzeko egin dugu. Hamalau eta hamasei urteko ikasleek heldutasun maila bat lortua dute eta prestaturik daude, gure ustez, irudi eta hotsen mundua era sakonagoan ulertzeko.

Helburuak

1.- Sormen-jarrerarekin adieraztea, bere komunikatzeko aukerak aberasteko helburuarekin plastika eta ikus-mintzairaren kodeak, terminologia eta prozedurak erabiliz.

2.-Plastika eta ikus-mintzairak beste mintzairekin dituen erlazioak ulertzea, euren komunikazio beharren arabera adierazpen formularik egokiena dena aukeratzeko.

3.- Estereotipoak eta konbentzionaltasunak gaindituz, norberarenarekiko eta ingurunean nagusiak diren moduekiko desberdinak diren plastika eta ikus-adierazpenak errespetatu eta preziatzea, eta autonomiaz jardutea ahalmentzen dioten iritzi eta irizpide pertsonalak lantzea.

4.- Obra baten burutzapen prozesuaren faseak indibidualki edo elkarlanean planifikatzea, lortu nahi diren helburuei egokitzeko bere osagaiak aztertzea eta, amaitzerakoan fase bakoitza berrikustea.

5.- Beste pertsonekin harremana izan eta malgutasun, elkartasun, interes eta tolerantzia jarrerak azalduz, inhibizioak eta aurreiritziak gaindituz, eta ezaugarri pertsonal edo sozialek eragindako diskriminazioak gaitzetsiz, talde jardueretan parte hartzea.

Edukiak

1. MULTZOA: Behaketa eta pertzepzioa

Kontzeptuzko edukiak
-Irudia / errealitatea.
-Irudia / adierazpena.
-Ikus-mintzairaren kodeak: ikonologikoa, sinbolikoa, estetikoa...

Prozedurazko edukiak
-Adierazpen eta errepresentazio modu desberdinen behaketa eta analisia
-Elkarrizketa eta behaketa irudi mentalak barneratu eta lantzeko baliabide gisa erabiltzea.

Jarrerazko edukiak
-Norbere sentipenen aurrean gogoetazko jarrerak.
-Norbere adierazpen artistikoak nahiz besteenak analizatu eta baloratzeko interesa.

2. MULTZOA: Plastika eta ikus-mintzaira

Kontzeptuzko edukiak
-Irudiaren osagarriak: forma, kolorea, ehundura, errepresentazioa.
-Irudiaren egituratzaileak: konposizioa eta bere elementuen arteko erlazioak.
-Sormen prozesuak: motibazioa, proiektuen lanketa, sormenaren burutzapena.
-Komunikazio-prozesua ikus-entzunezko medioetan: igorlea-mezua-hartzailea.

Prozedurazko edukiak
-Irudia osatzen eta egituratzen duten elementuen behaketa eta erabilera adierazkorra.
-Espazio errealean barneratzeko jardueren burutzapena.
-Kolorea, argia eta formak sortzeko erabiltzen dituzten konposizioen burutzapena.

Jarrerazko edukiak
-Errepresentazio grafikoei ekitean soluzio orijinalak bilatzeko jarrera positiboa.
-Izaera artistikoko obretan zein naturan barne antolaketa ezagutzeagatiko interesa.
-Lan prozesuko etapa ezberdinak zuzen erabiltzeko interesa eta disposizio aktiboa.

3. MULTZOA: Adierazpen eta komunikaziorako bide eta teknikak

Kontzeptuzko edukiak
-Euskarriak, materialak eta tresnak.
-Adierazpideen teknikak.
-Irudi finkoaren zenbait adierazpide: marrazkia, pintura, argazkia...
-Sekuentziaturiko irudien zenbait adierazpide: komikia, diaporamak, argazki nobelak...
-Irudi mugikorraren zenbait adierazpide: zinea, bideoa, telebista, ...

Prozedurazko edukiak
-Teknika desberdinen aplikazioa eta esperimentazioa euren adierazpen eta estetika aukerak menperatzea lortzeko (ikus-entzunezko baliabideak eta teknologia berriak barne).
-Teknika bakoitzak eskatzen dituen tresnak erabili euren ezaugarriak ikertzeko.

Jarrerazko edukiak
-Obraren ezaugarrien arabera teknika egokiena hautatzeak dakarren onuraren balorazioa.
-Tresna, material eta euskarriak erabiltzeagatiko interesa eta jakin-mina.
-Ideia orijinal eta sortzaileak sustatuz material eta teknikak maneiatzeko jarrera aktiboa.

4. kurtsorako zehaztasunak

1.- Plastika eta ikus-mintzairaren elementu eta prozesuak.
Eduki konplexuagoak proposatzean datza, hau da, mintzaira desberdinen sintaxiaren ezagutzan eta, adierazpen eta deskribapen helburuekin, hauen integrazioan sakontzen dutenak. Ondorioz, konposizio orekatuak burutzea eta sistema proiektagarrien aplikazioaren bidez formen errepresentazioa lor daiteke, hauetako bakoitzaren egitura berezia ulertuz nahiz ordezkaturiko irudiak ulergarriak izateko moduan eta formak eta ikus-eremuaren arteko proportziozko erlazioak finkatuz. Kontuan izan beharreko beste eduki garrantzitsuak berariazko ikus-mintzairen sintaxiko elementu konplexuagoen analisiarekin zerikusia dutenak izango dira.

2.- Adierazpen eta komunikazio teknika eta bideen ezagutza eta erabilpena.
Ikasleen heldutasun gehiago eskatzen duten teknika eta materialetan sakontzean datza, burutzapen prozesuaren planifikazioan lortu nahi diren helburuetarako egokiena den adierazpen prozedura aukeratzen delarik. Aurreko kurtsoetan baino teknika grafiko-plastiko konplexuagoak proposa daitezke. Teknologia baliabide berrien (ordenagailua, bideoa, fotokopiagailua), eta fotografiaren teknikan errebelatuaren erabilpenaren bitartez irudiak maneiatzea ere garrantzitsua da.

Ebaluaziorako irizpideak

1.-Inguruneko edo norberak sortutako plastika eta ikus-mintzairaren ikur konbentzionalak banaka edo multzoan interpretatzea, aipatzen dituzten objektu edo egoerekin erlazionatuz eta, testuinguru honetan, hauen egitura nahiz kualitate materialak analizatuz, bide batez adierazpide gisa duten garrantzia baloratzen delarik.

2.-Ingurunean ematen diren ikus-mezu desberdinei esanahi desberdinak bilatzea, beste testuinguru batean barneratuz, bere elementu esanguratsuetako batean aldaketak eginez eta beste adierazpen mintzaira batzuk erabiliz.

3.-Ikusmenaren arlo jakin baten formak antolatzerakoan aukera desberdinak bilatzea eta konposizio desberdinak lortzea, estereotipoak gaindituz, interesgunea, erritmoa, pisua, tamaina, oreka, ... bezalako kontzeptuak kontuan izanik eta emaitza eskema, zirriborro eta maketen bidez bistaratuz.

4.-Plastika eta ikus-mintzairako elementu desberdinak biltzen dituen eta lan faseen planifikazioa eskatzen duten artelanak burutzera zuzenduriko taldeko jarduerak burutzea.

5.-Norberarekiko desberdinak diren beste adierazpen motak kritikoki komentatu eta analizatzea, hauek onetsiz eta bide batez jarrera kritikoak nahiz autonomia pertsonala sustatuz.

Nola erabili seriea

Bideoak martxan jarri aurretik kontuan hartu beharrekoak.

-Seriea osatzen duten bideoei etekinik handiena ateratzeko ordenuan lantzea proposatzen da. Hau da, lehenengoan ez ezik beste bideoetan esaten dena moldez ulertzeko aurrekoa ikusia eta ikasia behar da izan.
Bideoak ordenuan erabili.

-Kapitulua lantzeko materialak ikasleei eman: hiztegia, aurkibidea, argazkiak, txantiloiak, ariketak... Ikasleek material hauek, hiztegia bereziki, gorde egingo dituzte, seriea amaitzean ikus-entzunezkoei buruzko material oso bat izateko.
Kapituluaren materialak ikasleei eman.

-Banatu dugun hiztegia, hitzez hitz, ikasleekin landuko dugu hitz bakoitza ongi ulertu arte. Horrela bideoaren azpiatal bakoitza errazago ulertuko dute.
Kapituluaren hiztegia landu.

-Bideo hauek bi atal nagusitan banatuak daude: lehenengoan, kontzeptuak denak modu zabalean azaltzen dira eta, bigarrenean, ikusitakoaren laburpena egiten da.
Bideo bakoitzak bi atal nagusi ditu.

-Lehenengo atalean kontzeptuko azpiatal bana bereizten da. Azpiatal bakoitza ikusi ondoren, bideoa gelditu egingo dugu eta ikusitakoaz hitz egingo klasean. Horrela egiten badugu, ikasleek, irakatsi nahi diren kontzeptuak, argiago ikusiko dituzte.
Bideoaren azpiatal bakoitza landu.

-Kapituluaren gida deitu dugun atalean bideoaren aurkibide bat ematen da, non kontzeptuak agertzen diren euren denbora eta guzti. Beraz, kontzeptu edo ideiaren bat berriro ikusi nahi badugu errazki aurkituko dugu.
Kapituluaren gidan kontzeptuen aurkibidea duzue.

-Bigarren atalean, goian esan bezala, bideoan ikusitako kontzeptuen birpasa orokorra egiten da. Laburpena izendatu dugun atal honen bidez, ikasleek, modu arinean, kontzeptuak gogoratuko dituzte eta gaiaren ikuspegi orokorra izango.
Laburpena joaldi batean ikus.

-Hori guztia burutu ondoren, kapituluaren ariketak egingo ditugu. Ariketok bideoan jorratu denarekin loturik daude. Euren xedea, ekintza praktikoak medio, ikus-entzunezkoen teknika eta mintzairaren ulermena erraztea da.
Kapituluaren gidako ariketak burutu.

-ZINTA SARTU, MARTXAN JARRI ETA, AURKEZLEA AGERTZEAN, BIDEOAREN DENBORA NEURGAILUA 00.00-ETAN JARRI-

Muntaien arazoak eta eurei buruzko erabakiak

8.- Muntaien arazoak eta eurei buruzko erabakiak.
Zinematografiaren definizioak zera dio: zinematografia kamera batez argazkiak segidan egin eta delako segida proiektore baten bidez pantaila batean argiztatuz irudi higikorrak erreproduzitzeko teknika da; teknika hori erabiliz filmak egiteko artea.
Hauxe da ikus-entzunezko ororen muntaiaren giltzarria. Aktoreen mugimenduak eta ekintzak erakusteko moduak ematen dio ikus-entzunezkoari berezkotasuna. Erakusteko modu horretan datza filmaren magia. Gure xedea, teknika ezagutu eta menderatuz, irudimenari tresnak ematea da.

Aurkibidea

Zintaren hasieran (2 minutuz) ohiko koloretako barrak eta txistu hotsa dituzu zure telebistaren koloreak eta hotsa egokitzeko. Ondoren, (30 segundoz) seriearen sarrerako irudiak eta izenburua datoz. Horien ostean agertzen da aurkezlea.
Jarri orduan zure bideoaren denbora neurgailua 00.00etan.

DENBORA	AZPIATALA
00.00	Aurkezpena
00.50	Mugimendua koadroaren aurre-aurrean
03.45	Mugimendua koadroaren atzealdean
06.10	Interesatzen zaiguna ezkutatuz
11.10	Interesgunearen aldaketa
13.25	Mugimenduak biribilean
16.40	Goitik beherako mugimenduak
19.25	Bat-bateko geldialdiak
20.20	Amarruak
25.15	LABURPENA
—.—	**Lanketarako eskena**

OHARRAK

.- Koadro aurrean egiten den eta gure pertsonaia estaltzen duen edozein mugimenduz balia gaitezke, kamera, posizioz aldatuz, pertsonaiarengana hurbiltzeko.

.- Pertsonaia bat pertsonaia nagusi bilaka daiteke, bere atzean mugimendu bat gertatzen denean.

.- Ikuslearen arreta irabazteko, interesatzen zaiona une batez ezkutatu baino ez dugu egin behar.

.- Batzuetan, mugimenduek hainbesteko indarra dute eta hain erakargarri gertatzen zaizkigu, plano batetik bestera interesgunez aldatzea ahalbidetzen digutela.

.- Nahiz eta mugimendu gehienak zuzeneko norabidean egiten ditugun, biribilean ere mugi gaitezke. Horrela egiten badugu, aukera dramatiko berriak izango ditugu eta gure ikus-entzunezkoak ikusgarritasuna irabaziko du.

.- Aktore batek egindako goitik beherako mugimendu bat filmatu nahi dugunean, dela esertzeko dela makurtzeko, triangeluaren funtsa ezarri baino ez dugu egin behar.

.- Oinez nahiz lasterka doan aktore baten mugimenduaren bukaera izan daiteke eskenaren une dramatikorik interesgarriena. Horregatik, zehatz-mehatz agertzea komeniko da.

Ariketak

Film azterketa. (Bigarren atala)

Aurreko kapituluan eszena baten film azterketaren lehen atala burutu dugu. Orain, bigarren eta azken atala egingo dugu.
Horretarako honako urrats hauek emango ditugu.

1.- Aurreko kapitulua lantzean hartutako oharrak berrirakurri, orduko plangintza eta ideiak gogoratzeko.

2.- Filmatutako eszena ikusi.

3.- Bakoitzak egindako oharrak eta plangintza pantailan ikusitakoarekin alderatu. Esan bezala, kontua ez da eskenaren zuzendariarekin alderatzea, kontua da orain arte ikasitakoak sakontzea. Horrela, plangintza eta aukera berriak aztertuz, gure ezagutza aberastuko dugu.

Alderatze lanak bukatzean, klasekideen aurrean bizi izandako esperientzia agertu eta, denen artean, elkarrizketa bat sortu.

4.- Elkarrizketa bukatzean, ikusi berriro eszena esandakoak egiaztatzeko edo ideia berriez jabetzeko edo, zergatik ez, zuzendariak egindakoa kritikatzeko.
Behar adina aldiz ikusi eszena.

(Oharra: eszena filmatua bideo honen bukaeran dago.)

Hiztegia

Distraitzeko mugimendua. Pantailan nabarmen agertzen den pertsonaiak egiten duen bat-bateko mugimendua gure arreta erakartzeko. Muntaian mugimendu horretaz baliatzen da hurrengo planora igarotzeko.

Mugimendu biribila. Pertsonaiak, antzezten ari dela, biribilean egiten duena. Grafikoan lerro biribilaz ordezkatzen da.

Mugimendu zuzena. Pertsonaiak, antzezten ari dela, zuzen egiten duena. Grafikoan lerro zuzenaz ordezkatzen da.

Goitik beherako mugimendua. Pertsonaiak, antzezten ari dela, esertzeko zein altxatzeko egin ohi dituenak.

Ezkutatzeko mugimendua. Pertsonaia batek ekintza nagusia ezkutatzeko egiten duena,

Liburuak

Gidoigintzaren gainekoak

Cómo se cuenta un cuento. G. G. Márquez.
Ollero & Ramos Editores, SL - Madril - 1996

Poética. Aristóteles.
Bosch, Casa Editorial - Bartzelona - 1994

Técnicas del guión para cine y televisión. Eugene Vale.
Serie Práctica, Gedisa Editorial - Bartzelona - 1985

Ikus-entzunezkoen mintzairaren teoriaren gainekoak

Manual de cinematografía. David Cheshire.
H. Blume Ediciones - Madril - 1981

El oficio de director de cine. Jaime Camino.
Ediciones Cátedra SA - Madril - 1997

Técnica del cine documental y publicitario. H. Mario Raimondo Souto.
Ediciones Omega - Bartzelona - 1976

Kameraren gainekoak

Manual del cámara de cine y video. H. Mario Raimondo Souto.
Cátedra / Signo e imagen - Madril - 1997

Hots eta soinuen gainekoak

La ambientación musical. Rafael Beltrán Moner.
IORE - Madril - 1991
Ikus-entzunezkoak nola girotu musikaz azaltzen digu egileak. Baita sorkuntzazko aukerak ere.

Muntaiaren gainekoak

Técnica del montaje cinematográfico. Karel Reisz.
Taurus Ediciones - Madril - 1980

Seriea osatzen duten bideoak

1.- Eremu filmatua

2.- Triangeluaren funtsa.

3.- Bi aktoreren arteko elkarrizketa

4.- Hiru aktoreren arteko elkarrizketa

5.- Lau edo aktore gehiagoren arteko elkarrizketa.

6.- Elkarrizketa duten eskena geldoen muntaia

7.- Mugimendua koadroaren barruan

8.- Muntaien arazoak eta eurei buruzko erabakiak

9.- Kameraren mugimenduak

10.-Akziozko eskenen filmazioa

11.-Puntuazio zeinuak

12.-Hotsen muntaia

Ekoizlea:

iadi

Banatzailea:

artez
IKUS-ENTZUNEZKOAK

M. Ortiz de Urbina pintorea, 3
11.bulegoa
01008-Gasteiz
Tel-faxa: 945200608

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAK
ONETSIA

2001 / 05 / 03